

Euskararen batasuna eta estandarizazioa


Miren Azkarate

Aurtengo abuztuaren 20an beteko dira 100 urte Koldo Mitxelena Elissalt jaio zela. Mendeurren horren karietara, *Oarso* urtekariak eskainiko dion gehigarri berezia ontzeko, geure ekarpentxo eskatu digute lagun-talde bati. Niri, zehazki, hauxe eman didate gaitzat: zer ekarri zion Mitxelenak euskara batuari eta estandarizazioari? Horretaz jardun genuen 2012ko udazkenean, Mitxelena hil zela 25 urte bete zirenean ere, besteak beste *Oarso* urtekarian; bai eta 1964ko Baionako Biltzarraren 50. urteurrenaren harira ere. Saiatuko naiz, hala ere, dagoeneko esanak daudenak ez errepikatzen.

Ohituak gaude Koldo Mitxelenaren izena eta euskara batua uztartzen; oraingoan, ordea, estandarizazioa ere kontuan hartzea eskatu zait. Zer da estandarizazioa? Zerbait “eredu edo arau jakin baten arabera” antolatzea. Horixe da, izan ere, estandarra; edozein alorretan egin daitekeen eta egiten den saioa. Hizkuntzei dagokienez, hiztun-komunitate batek —ahoz nahiz idatziz— erabiltzen dituen aldaera guztiak “eredu edo arau” bakarrera ekartzea; edo, nahiago bada, aldaera-aniztasunetik abiatuz, aldaera bakarra lortzea, bereziki eremu formalean baliatuko dena (irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan...). *Euskara batua* deitu izan diogu guk eredu horri; hain zuzen ere, ahoz eta idatziz euskarak zuen ugaritasunetik abiatuz eredu bat eta bakarra zekarrelako. Gorago esan bezala, inork ez dio ukatzen Mitxelenari *euskara batu* horren gidari eta bultzatzaile nagusi izana; euskalkitan banatuta genuen literatura tradizioetik abiatuta eredu bakarraren proposamena egin izana. Ez diot helduko proposamen horren alderdi linguistikoari,

La unificación y estandarización del euskera

La estandarización de una lengua supone establecer un código, un modelo que será utilizado en los ámbitos formales, tales como la enseñanza, la administración, o en los medios de comunicación. Hablamos, por tanto, de un código lingüístico que en el caso del euskara conocemos con el nombre de *euskara batua* o euskara unificado. Koldo Mitxelena fue, sin duda, el gran artífice de dicho código, el catedrático universitario con los conocimientos necesarios y con reconocido prestigio para llevarlo a cabo. Pero ese hecho, en sí mismo, no explica el éxito que ha tenido el modelo estándar diseñado por Mitxelena. Y es que en el campo de la Sociolingüística es bien conocido que el establecimiento de un código unificado, de un modelo estándar, si ha de tener éxito, debe ser aceptado por los “destinatarios”, es decir, por la sociedad. Y debe ser promovido por las autoridades en la enseñanza, en la administración, o en los medios de comunicación públicos. Ahí radica el gran acierto de Koldo Mitxelena: en haber sabido defender que la unificación era imprescindible para la supervivencia del euskera; en haber sabido proponer un código que satisficiera el anhelo de cambio y de modernidad



Mitxelena-ren eskuizkribua. Salamancatik (1968).

ez baitut uste lerro hauek eskatu zizkidatenean halakorik espero zutenik; alegia, ortografia, erakusleentzako batasunerako formak, aditz laguntzaile batua, edo "h" dun hitzen zerrenda proposatzerakoan zein irizpide hartu zituen oinarri, zer argudio linguistiko dagoen proposamen bakoitzaren azpian. Beste alderdi batzuk nabarmendu nahi ditut, besteak beste, agian irakurleari ezezagunagoak izango zaizkiolakoan.

Batetik, eta hau datu garrantzitsua da, munduko hizkuntza gehienek ez dute aldaera estandarrik; ez dute beharrik izan hiztun-komunitateak

que sentía la juventud vasca al final de la década de los sesenta, un modelo que sintieran válido para abordar las nuevas corrientes literarias en boga en Europa; en haber sabido persuadir al recién elegido Gobierno Vasco de 1980 de que el modelo estándar era el que debía ser adoptado para la enseñanza. En suma, también en el caso del País Vasco, las razones extralingüísticas son las que explican el éxito del modelo estándar y Mitxelena fue el artífice que supo entender todas esas claves y responder de forma adecuada a las necesidades de aquella sociedad.

erabiltzen dituen aldaera horien artetik bakarra hautatzeko. Hizkuntza jakin bat, eremu jakin batean ofizial bihurtzeak ekarri du askotan estandar baten beharra, aldaera bakar baten beharra; eta, aldi berean, nazio jakin bat estatu bihurtzeak ekarri du maiz hizkuntza ofizial egitea. Hala gertatu zen norvegiarren, gaelikoaren edo txekieraren kasuan XX. mendearen hasieran. Hala gertatu zen hebreeraren, hindiaren edo indonesieraren kasuan ere Bigarren Mundu Gerraren ostean Israelgo, Indiako eta Indonesiako estatuak sortu zirenean. Horixe izan zuen, hain zuzen ere, lehen aztergai Hizkuntza Plangintzak, Soziolinguistikaren barnean iker-lerro autonomo gisa nabarmendu zenean. Estatu izatera iritsi gabe ere, autonomia politiko nahikoa izanez gero, gobernu batek izenda dezake hizkuntza bat ofizial dagokion eremuan. Hala gertatzen da Katalunian, Galizian edo gurean. Baina halako autonomia-mailarik izan aurretik hasi ginen hemen *euskara batua* prestatzen. Izan ere, XIX. mendean Ulibarri, Aizkibel eta beste hainbat mintzatuak

ziren literatura-euskalki bakarraren beharraz; eza-gunak dira Axularrek eta bestek ahalik eta euskaldun gehienek ulertzeko moduko euskararen idazteko eginiko ahaleginak. Euskaltzaindiak ere euskararen batasuna izan zuen helburu sortzetik beretik (honetaz gehiago jakin nahi duenak Koldo Zuazoren *Euskararen batasuna* tesi bikaina ikus dezake (www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/4991.pdf) edo Sareko euskal gramatikak gai honi eskainitako artikulua irakurri (<http://www.ehu.eus/seg/gizt/6>). Aspaldiko nahi horri erantzun zion, beraz, Mitxelena-ren proposamenak eta, aldi berean, ondoren etorriko zen ofizialtasunerako bidea prestatu.

Bestetik, ezin ahaztu hizkuntzaren alderdi soziolinguistikoaren garrantzia. Hau da, *euskara batua*, estandarrerako kodea edo araua da; baina zer iritzi du gizarteak kode horretaz, horren beharrik ikusten al du? Zertarako erabiliko du? Edo are, nolako ezaugarriak ditu, oro har, gizarte horrek? Hizkuntza Plangintzaz arduratzen direnek ondo



Ezkerretik eskuinera: Koldo Mitxelena, Jean Marie Ihartza "Iratzeder", Jean Haritschelhar, Alfonso Irigoien, Luis Villasante, José María Satrustegi, Patxi Altuna eta Imanol Berritua.

Ezkerretik eskuinera, makurtuta: Juan San Martín, José Luis Lizundia, Joseba Intxausti eta Xabier Kintana.

asko dakite aldaera estandarra osatzeko hautatzen diren hizkuntza-irizpideek baino garrantzi handiagoa dutela gizartearen ezaugarri eta iritziek; hots, hizkuntzaz kanpoko gertakariak. Saia gaitzen, bada, galdera horietako batzuei erantzuten, horrek erakutsiko baitigu zenbaterainokoa izan zen Mitxelenaren eragina, *euskara batu* deitu diogun kodea proposatu eta lantzetik harantzagokoa dena.

Bigarren alderdi hau kontuan harturik, Koldo Mitxelenaren lehen lana batasunaren beharra, ezinbestekotasuna azpimarratzea izan zen. Zuazoren lanean ikus daitekeen bezala eredu edo kode bakarrik behar ote zen eztabaidan zebiltzanean, “ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun-bidean jartzea” defendatu zuen Mitxelenak Arantzazuko Biltzarreko txostenean (“Ortografia”, http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenaraua&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu). Kode edo arau hori lantzea zen euskarak zuen irtenbide bakarra; baldintza beharrezkoa, baina ez nahikoa, 1970eko “Pro domo” idazlan ezagun eta guztiz gomendagarrian esan zuen bezala: “batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde aurretik” (<http://andima.armiarma.eus/egan/egan52/iruegan520018.htm>); egiazko pedagogia-lana da “Pro domo” lanean batasunaren alde eginikoa.

Zertarako behar genuen *euskara batua*? Honetan ere “Ortografia” txostena edo “Pro domo” irakur ditzake jakin-mina duenak. 1970eko

hamarkadan, idatzirako defendatu zuen Mitxelenak kode edo arau bakar hori; eta, idatziaren eremuan, irakaskuntzarako. Gero, ofizialtasunak ekarri zituen berekin beste erabileremu batzuk, hala nola administrazioa edo hedabideak. Zergatik irakaskuntzarako? Euskara biziko bazen, beharrezkoa zuelako irakaskuntzan erabiltzea (“euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada”, “Ortografia”). Honetan ere bat dator Mitxelena Soziolinguistikako adituekin; Fishmanek behin eta berriz azpimarratu zuen bezala, hezkuntzak berebiziko garrantzia du hizkuntza gutxituak iraunarazteko ahaleginean. Baina, aldi berean, baziren euskaraz irakasteko ez genuela kode edo arau bakarrik behar uste zutenak ere. Berriro ere erabakigarria izan zen Mitxelenaren eragina Eusko Jaurlaritza osatu zenean. Alferrikakoa izango zen *euskara batua* landua izatea, agintariak irakaskuntzarako beste eredu bat(zuk) bultzatu izan balituzte. Mitxelenaren itzalak asko egin zuen erabaki horretan.

Baina Mitxelenak proposaturiko ereduak euskal idazle eta irakasleen artean izan zuen onarpena da, zalantzarik gabe, azpimarragarriena. Idazle gazteek garai hartako literatura-joeretarako, gai berriak jorratzeko balioko zien eredu bat behar zuten. Gizartea bera ere aldaketa betean zegoen 1960ko hamarkadan. Garai hartan euskal eragileak asebate zituen eredia proposatzen asmatu zuen Mitxelenak. Hizkuntzaz kanpoko gertakariak izan ziren, gurean ere, batasunaren arrakastaren arrazoi nagusia; eta Koldo Mitxelena hori guztia behar bezala ulertu eta behar zen erantzuna ematen asmatu zuena.

